



A M I A

## **ELKARTEAK**

Gure enpresa, produktuak sortzerako unean, hainbat elkarte egingo ditu:

Lehenik Pikler sehaska izango denez, Pikler pantentea duen enpresarekin (Ergokids) harremanetan jarriko gara, Pikler sehaskaren produktua erabili eta berritzeko baimena izan dezagun. Gure sehaskak Pikler sehaskaren oinarria izango du, baina gehigarriak izango dituenek, motorrak, kamarak eta mikrofonoak ekoizten dituzten enpresekin harremanetan jarriko gara, eskuragarritasuna bermatzeko.

Haurreskoletako materialak saltzen dituzten dendekin harremanduko gara ere, adibidez, Almenara enpresarekin (Pikler produktuak eskaintzen dituen enpresa), gure produktuak bertan saldu ahal izateko. Kasu honetan, produktua Pikler sehaska izango da eta haur dendekin akordio batera iritsiko gara gure sehaska bertan bezeroek erosi ahal izateko.

Elkarte horiek, garrantzitsuak izango dira gure jardunak aurrera eraman ahal izateko, bi arrazoi direla medio. Lehen, elkarte horien bitartez, gure produktuak beharko dituen baliabide edo material ezberdinak eskuratzeko. Bigarren, elkaratearen - elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoen - bitartez, bezeroek gure enpresa ezagutuko dute, baita patente bereko beste hainbat produktu.

